

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 1607

*IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendurrean jartzen baitira Elmubas Ibérica, SL enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktuaren azterlana, lagun egiteko animalientzako pentsua fabrikatzeko Azpeitiko udalerrian (Gipuzkoa) duen ingurumen-baimenaren funtsezko aldaketa bideratzeko.*

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz, ingurumen-baimen integratua behar da 1. eranskinean aipatzen den jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko.

Ingurumen-baimen integratuaren helburua da atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihesteko baldintzak ezartzea, eta, hori ezinezkoa bada, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea eta kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea behintzat, ingurumena ahalik eta gehien babesteko.

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onartu zuen Industriako Isurpenen eta uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legea garatzeko Erregelamendua. Horren 15. artikulua, funtsezko aldaketak izapidetzeko prozedura sinplifikatua arautzen du. Artikuluaren 5. puntuan xedatzen denez, dokumentazio osoa aurkeztu ondoren, organo eskudunak jendurrean jarriko du, gutxienez hogeita egunez.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2. apartatuan jasotako jardueren kasuan eta sustatzaileak hala eskatzen duenean, ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa egingo zaie obrak, instalazioak edo beste edozein jarduera egiteko proiektu publiko eta pribatuei.

Ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioaren prozedurak aurreikusten du proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana jendurrean jartzeko izapide bat, organo substantiboak gutxienez hogeita hamar egun balioduneko epean egin beharrekoa; aldeaz aurretik Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean eta haren egoitza elektronikoa iragarkia jarrita.

Bestalde, aipatutako testu bateginaren arabera, autonomia-erkidegoek ahalbidetu behar dute ingurumen-inpaktuaren jarduketak ingurumen-baimen integratua emateko prozeduran sartzea, baldin eta nahitaezkoa bada eta eskumena autonomia-erkidegoarena bada.

Elmubas Ibérica SL-ren jardueraren kasuan (lagun egiteko animalientzako pentsuen fabrikazioa), bidezkoa da aldi bakar batean eta batera jartzea jendurrean bai proiektu teknikoa bai ingurumen-inpaktuaren azterlana ere; ingurumen-baimen integratuaren funtsezko aldaketa eta ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa izapidetzeko.

Adierazitakoa dela-eta, AAI00335\_MS\_2020\_002 espedientea jendurrean jarri behar da, 30 egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu

2021eko martxoaren 17a, asteazkena

eta hurrengo egunetik aurrera, egoki ikusten diren alegazio edo oharrak aurkezteko. Informazio publikoaren izapidea bete behar duen instalazioaren espedientea ikusgai jarriko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 24a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.